



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

50. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Azaroa



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

- > Pertsonak enpresetan parte hartzeko eredia aurkeztu du Gipuzkoak Bruselan, lurraldearen lehiakortasunaren eta gizarte-berrikuntzaren giltzarri gisa

Gipuzkoako Foru Aldundiak joan den azaroaren 26an Bruselan egindako jardunaldian parte hartu zuen. Pertsona langileek enpresen jabetzan parte hartzeko Europako politika publikoek hamar urte bete dituztela eta egin zen jardunaldia.

Europar Batasuneko lehendakaritza belgikarrak antolatu eta Soldatapeko Akziodunen Europako Federazioak (European Federation of Employee Share Ownership) koordinatutako biltzarrak, pertsonak enpresetan duten parte-hartzearen inguruko hainbat benetako esperientzia ezagutzeko aukera eman zuen. Biltzarrean aurkeztutako ekimenen artean, Frantzia eta Alemania bezalako herrialdeen eta Vivendi, Saint Gobain eta Steria bezalako enpresen ekimenak aurkeztu ziren. Gipuzkoa izan zen ekimen propioa aurkeztu zuen lurralde bakarra.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren izenean, Iñaki Ibarra txosten bat aurkeztu zuen, eta azalpenean, erakunde honek bultzatuta Gipuzkoan langileek enpresen jabetzan parte hartzeko ereduaren esperientzia praktikoaren berri eman zuen. Parte hartzeko eredu hori funtsean lau arlotan garatzen da: kudeaketan, proiektu berriak sortzean, etengabeko hobekuntzan eta akziodunen jabetzan.

Berrikuntzako Departamentuak aurkeztutako ereduaren xedea, pertsonetan, erantzukidetasunean eta konpromisoan oinarritutako antolaketa-sistema berritzaileak eta eraginkorrak ezartzea da; lidergo partekatua izango dutenak eta emozioak zentzuz kudeatzea barne hartuko dutenak, modu horretan, konfiantzako inguruneak sortuz. Halaber, enpresen lehiakortasuna hobetzea ahalbidetuko dutenak eta gizarte-berrikuntzarako prozesuak sustatuko dituztenak.

Ildo horretatik, ESOP (Employee Stock Ownership Plans) bezalako tresnek eskaintzen dituzten aukerez baliatzeko beharra planteatzen da. ESOPek enpresen jabetzaren transmisioa gauzatzeko moduak bideratzea ahalbidetzen dute, erabakitzeke ahalmena lurraldean mantenduz.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek, pertsonak enpresetan duten parte-hartzea sustatzeko interesgarritzat jotzen dituzten hainbat tresna legegile eta fiskal aurkezteko baliatu zuten jardunaldiko aurkezpena.

Informazio gehiago.

[http://www.efesonline.org/2010/Belgian%20Presidency%20of%20the%20EU/Documents/PARTICIPACION%20\(IIBARRA-BRUSELAS%20vs%20inglis%2004\).pdf](http://www.efesonline.org/2010/Belgian%20Presidency%20of%20the%20EU/Documents/PARTICIPACION%20(IIBARRA-BRUSELAS%20vs%20inglis%2004).pdf)

Biltzarra: Hizlarien dokumentazioa eta aurkezpenak.

<http://www.efesonline.org/2010/Belgian%20Presidency%20of%20the%20EU/EN.htm>



> Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa: aurrerapen-maila

Ekonomia-, Gizarte- eta Lurralde-kohesioari buruzko Batzordearen V. Txostenak eskualdeetako ekonomia, gizarte eta ingurumenaren egoeraren eta joeren, eta kohesio-politikak izandako lorpenen ebaluazio sakona egiten du.

Eta 2013 urtetik aurrera politika egokitzeko aukera desberdinak planteatzen ditu. Etorkizuneko finantziario lehentasun kopuru zehatz batean oinarritu beharko litzatekeela nabarmentzen du, Europa 2020 estrategiak ezarritako helburuekin bat etorri, eta kohesioaren inguruko inbertsioaren eragina maximizatzeko beharrezkoak diren lehentasun, helburu eta erreformak zehaztuko dituen esparru estrategiko oso eta zehatz bat oinarritzat hartuz.

Eta aurkezten diren programen kalitatearen eta aurrerapenen arabera, erreserbatzeko eta nazio eta eskualdeetako agintarien esku uzteko aukera planteatzen da. Kontsulta publiko prozesu bat martxan jarri da eta urtarilaren 31 arte egongo da zabalik.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/reports/cohesion5/index_es.cfm

> Zahartze aktiboa eta osasuntsua: kontsulta

Azaroaren 26an, Europako Batzordeak kontsulta bat abiatu zuen, zahartze aktibo eta osasuntsuaren inguruan eta biztanleria zahartzearen erronkei aurre egiteko Europak berrikuntza hedatzeko moduaren inguruan.

Berrikuntzarako Europako elkarteak (BEE) zahartze aktibo eta osasuntsuari buruz egindako ereduak proiektuak hiru esparrutan jartzen du arreta: pertsona helduen osasuna eta bizitza-kalitatea hobetzea, bizitza aktibo eta independentea bizitzeko aukera izan dezaten; osasunaren eta gizarte-laguntzako sistemen jasangarritasuna eta eraginkortasunean laguntzea; eta lehiakortasuna eta negozioarako aukerak sustatzea. Eta 2020 urterako bizitza osasuntsuaren itxaropena bi urtez areagotzeko helburua du. Kontsulta 2011ko urtarilaren 28an amaituko da.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/information_society/activities/einclusion/deployment/ahaip/consultation/index_en.htm



KOHESIO-POLITIKA

> Europako eskualdeak 2010ean

Eurostatek Eskualdeen Urtekaria 2010 argitaratu du, eta datu estatistikoez baliatuz, Europako eskualdeen informazio zabala jasotzen du.

Eskualdeetako adierazleek 15 gai nagusi hartzen dituzte bere baitan: biztanleria, hiriak, lan-merkatua, barne produktu gordina, etxeetako kontuak, enpresen egiturazko estatistikak, informazioaren gizartea, zientzia, teknologia eta berrikuntza, hezkuntza, garraioa, turismoa, osasuna, nekazaritza, kostaldeko eskualdeak, eta hiri- eta landa-guneen tipologia berriaren gaineko azterketa.

Informazio gehiago.

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-HA-10-001

> Regio Network 2020

Europako Batzordeak webgune berri bat abian jarri du, eskualdeetako politikaren inguruko sare eta harreman profesionalak sortzeari buruz.

RegioNetwork 2020 webgunea jardunbide egokiak trukatzeko eta EBren kohesio-politikarekin lotutako gaiak eztabaidatzeko foroa da.

Informazio gehiago.

<https://webgate.ec.europa.eu/regionetwork2020/>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Europaren 2011ko aurrekontua

Azaroaren 26an, Batzordeak 2011 urterako aurrekontu-proiektu berri bat onetsi zuen; 126.500 milioi euroko zenbatekoa du, eta aurreko urteari dagokionez, % 2,9 handitu da.

Gastuaren atal nagusiak hazkunde jasangarria eta baliabide naturalen zaintza eta kudeaketa dira, eta hurrenez hurren, guztizko gastuaren % 46 eta % 41 adierazten dute. Hazkunde jasangarriaren atalean, kohesioaren atalaren hazkunde nabarmenak da.

Azaroaren 15ean Kontseiluak eta Parlamentuak ez zuten EBren aurrekontuari lotutako gai politikoen inguruko akordioa erdietsi, eta horrek, adiskidetze-prozedura apurtzea ekarri zuen. Proiektu hau hori gertatu ostean onetsi da.

2010eko abenduaren 31 baino lehen akordiorik izan ezean, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera EBk behin-behineko hamabiren sistemaren arabera funtzionatuko luke. Hau da, aurrekontuaren kapitulu bakoitza hileroko finantzatuko litzateke 2010eko aurrekontuaren hamabiren batekin, edo gutxiagorekin, aurrekontu-proiektuan kapitulu horrentzat esleitutako zenbatekoa txikiagoa denean

Informazio gehiago.

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/10/1612&format=HTML&aged=0&language=E&guiLanguage=fr>

> Nekazaritza Politika Bateratua 2013tik aurrera

Europako Batzordeak 2013 urtetik aurrerako Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) erreformatzeko ildo nagusiak aurkeztu zituen.

NPBari dagokionez, hiru helburu nagusi planteatzen ditu: elikagaien ekoizpen bideragarria, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta klimaren inguruko ekintza, eta lurraldeen oreka eta landa-guneen aniztasuna mantentzea.

Eta erreformarako hiru aukera proposatzen ditu: Estatu kideen arteko ordainketa zuzenak banatzeko orduan zuzentasun handiagoa izatea (egungo sistema mantenduz), Estatu kideen arteko ordainketa zuzenak banatzeko orduan zuzentasun handiagoa eta horiek sortzerakoan funtsezkoa aldaketa sartzea, eta hirugarren aukera, gaur egungo ordainketa zuzenak egiteko modua progresiboki ezabatzea.

Informazio gehiago.

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/10/1527&format=HTML&aged=0&language=E&guiLanguage=fr>



> Energia 2020: energiaren inguruko lehentasunak

Europako Batzordeak “Energia 2020 – Estrategia lehiakor, jasangarri eta segurua” jakinarazpena onetsi du.

«Energia 2020» ekimenak hurrengo hamar urteetarako energiaren inguruko lehentasunak eta aurrera eraman beharreko jarduketak finkatzen ditu, energia aurreztea, prezio lehiakorrek eskainiko dituen merkatua lortzea eta hornikuntzaren segurtasuna bermatzea ekarriko duten erronkei aurre egin ahal izateko. Era berean, lidergo teknologikoa eta nazioarteko gure bazkideekin negoziazio eraginkorra indartzea jasotzen du.

Informazio gehiago.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0639:FIN:EN:PDF>

> Ekintzailtza Gipuzkoan, erkidegoaren kohesio-politikak lagunduta

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren ekintzailtza laguntzeko Txekin programa, Euskal Herriko EGEF 2007-2013 Programa Eragilearen 1. ardatzaren baitan kokatzen da. Eta 2007an eta 2008an, 1.465 enpresa berri sortzen lagundu du, Estrategia Empresarial argitalpenaren arabera.

Ekimena kritikotzat jo daitezkeen faseetan enpresa-proiektu berriak indartzeko helburua du; hau da, euren bideragarritasuna egiaztatzea, abian jartzea eta hasierako etapan enpresa indartzea. Lurraldea gizarte ekintzaile gisa sustatzearen alde egiten duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurralde-estrategiaren baitan sortutako programa da.

Informazio gehiago.

<http://www.estrategia.net/estrategia/POPV%20FEDER/tabid/636/ItemID/40238/View/Details/Default.aspx>



e-LIBURUTEGIA

> Enplegua Europan 2010

Urteko txostenak krisiak gazteengan duen eragina nabarmentzen du; langabeziak neurritz kanpo eragiten die 25 urtetik beherako biztanleei eta hainbat herrialdetan % 30 baino gehiagora iristen da.

Eta langabezia areagotzeari lanean hasteko aukera murrizak gehitu zaizkio, eta horrek iraupen luzeko langabezia handitzeko arriskua areagotu du. Halaber, krisiak lan-merkatuaren segmentazioaren ondorio negatiboak agerian utzi dituela adierazten du, hain zuzen ere, kontratu egonkorrez babestutako lanpostuak dituztenen eta aldi baterako kontratuen bidez lan egiten dutenen artean.

Informazio gehiago.

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=en&pubId=593&furtherPubs=yes>

> Emakumeen aurkako indarkeria

Emakumeen aurkako indarkeria eta genero berdintasunaren zeregina, gizarteratzea eta haren osasun estrategiak aztertzen ditu txostenak.

Emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinei lotuta (fisikoa, sexuala edo psikologikoa), Estatuen egoera jasotzen du, eta prebentzioari, biktimen laguntzari eta gizarteratzeari begira garatutako ekintzen ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Informazio gehiago.

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=en&pubId=600&type=2&furtherPubs=no>



> ETEak kontratu publikoetan sartzea

Azterketaren arabera, kontratazio publikoko merkatuek gutxi gorabehera erkidegoaren BPGaren seiren bat adierazten dute. Gobernuak, tokiko agintariek eta erakunde publikoek, zerbitzu publikoek eta erakundeek eskatutako horniketa, zerbitzu eta obra aukera handia barne hartzen dute.

ETEEK kontratazioen % 42erako sarbidea dutela uste bada ere, ETEak kontratu publikoetan sartzea mugatzen duten oztopo ugari daude: informazioa eskuratzea, ezagutza, tamaina, administrazio eta finantzen lan-kargak, hizkuntza...

Informazio gehiago.

<http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/business-environment/public-procurement/>



ADIERAZLEAK

> Enpresa gipuzkoarren salmentak gelditu egin dira urrian

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak emandako informazioaren arabera, urte honetan zehar enpresen salmentak jasandako susperraldia gelditu egin da urrian.

Horrela, urteko lehen hamar hilabeteetan salmentak % 3,3 areagotu ziren; uztailetik aurrera hazkundea geldotu egin zen eta urrian murriztu egin zen.

Esportazioak handitzeak enpresa gipuzkoarren hazkundea sostengatzen du, goraka ari diren herrialdeetan egindakoek bereziki.

Informazio gehiago.

<http://www.ogasuna.info/category/informes-de-empresas/lang-pref/eu/>

> Enpresa europarren erdia baino gehiago berritzaileak dira

Eurostaten datuen arabera, enpresa europarren % 52ak berrikuntza-jarduerak burutu ditu azken urteotan; Alemania nabarmentzen da % 80arekin.

Enpresa berritzaileen artean, % 34k beste enpresa, unibertsitate edo ikerketa-zentro publiko batzuekin batera lan egiten du bere jarduera berritzaileak burutzeko orduan. Danimarka nabarmentzen da % 57arekin.

Informazio gehiago.

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=STAT/10/166&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=fr>